

Apoaren kondaira

Zugarramurdiko istorio magikoa

Entzun ongi...

Belaunaldiz belaunaldi

Ezagutzen al duzue Zugarramurdin belaunaldiz belaunaldi eta ahoz aho jasotako apoaren kondaira?

Entzun ongi, entzun ongi...

Apoaren kondairak dio akelarre batera lehenbizikoz joaten zenari akerbeltzek apo bat ematen ziola.

Apoa poltsikoan gorde, etxera eraman eta sukaldean ezkutatzen zuen.






Apoaren sekretua

Ondorengo egunean, apoa bere ezkutalekutik atera eta sorgin berriari hurrengo akelarrea non eta noiz izango zen esaten zion belarrira.

Ondoren, sorginak apoari kolpe bat eman eta animaliak isuritako likidoa bere gorputz guztitik igurtzen zuen.

Orduantxe hasten zen magia.



Sorgina, urduri, bertsoak xuxurlatzen hasi zen:

**Hemendik akelarrera,
sasi guztien gainetik,
hodei guztien azpitik.**

Eta sorgina hegan hasi zen, ilargiaren argipean.



Gaua amaitu zenean...

Akelarrea bukatutakoan, emakume guztiek
Zugarramurdiko leizetik igarotzen den Infernuko
errekan euren eskuak garbitzen zituzten.

Gero, etxerako bidea hartzen zuten, gau magiko hartan
ezer gertatu ez balitz bezala.

**Eta zuk? Sinesten al duzu sorginen kondaira
honek dioena?**

Kontuz, badaezpada: izena duen guztia... bada.

Ikimilikiliklik!

Iturria: Zugarramurdi Sorginen Museoa